



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

Jagoba Manterola Ruiz
Mikel Gereka Zelaia
José María Alzuri Vertiz
María Izaskun Altxu Ariztegi
Javier Bereau Miquelarena
Carmelo Ayoroa Hualde

2016ko ekainaren 21ean, 13:00etan, Aparteko Osoko Bilkuran elkartzen dira Iturengo Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. María José Bereau Baleztena — Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Miguel José Belarra Tellechea. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

1. “AMEZTIA ETA ARRUTOLAKO AUZOETARAKO BIDEAK” IZENEKO OBRA.

Gonbidatuak izan ziren 4 enpresekin burutu diren negoziazioen emaitzak ikusirik eta Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legearen 74. artikuak xedatzen duena kontutan hartuz, aho batez erabaki da:

1. “ITURENGO UDALERRIAN BIDE LOKALEN HOBEKUNTZA PROIEKTUA” izeneko agirian dauden lanak esleitzea SASOI ERAIKUNTZAK SL enpresari, B 31 544075 IFK, hogeita bat mila hamazazpi euro eta hogeita sei zentimotan (21.017,26 €), gehi BEZa. Amezitia eta Arrutolako auzoetarako bideetan egingo dira obrak. Lanak, hilabete bateko epean bukatu beharko ditu, hasiera-aktako datatik hasita.

2. Kontratua sinatzeko ahalmena ematea alkateari.

3. Martín Mindeguia Ochandorena izendatzea obrako zuzendari teknikoa.

4. Erabaki hau jakinaratzea esleipendunari, eskaintzak aurkeztu dituzten enpresei eta obrako zuzendariari.

2. UR-BILTEGIKO OBRA. FINANTZA-PLANA.

Amezitia eta Arrutolako bideen hobekuntza eta Iturengo ur-depositu berria eta haren bidea izeneko obrak egiteko finantza-plana onetsi zuen Udalbatzak, 2015eko uztailearen 13ko Osoko Bilkuran. 20.377,88 euroko diruzaintza-soberakina afektatu zen bigarren obra hura finantzatzeko.

Aldaketa batzuk sartu dira proiektuan eta, ondorioz, aho batez erabaki da:

1. Iturengo ur-depositu berria eta haren bidea izeneko obrak finantzatzeko afektatutako diruzaintza-soberakina, 20.525,88 eurokoa izango dela.

2. Erabaki hau jakinaraztea Toki Administrazioiko Zuzendaritza Orokorrari.

3. UR-BILTEGIKO OBRA. ZUZENDARITZA TEKNIKOA.

Gonbidatuak izan ziren 3 enpresekin burutu diren negoziazioen emaitzak ikusirik eta Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legearen 74. artikuak xedatzen duena kontutan hartuz, aho batez erabaki da:



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

1. “Biltegi erregulatuak berria eta haren bidea Ituren (Nafarroa)” izeneko proiektuan dauden obrak zuzendaritza teknikoak esleitzea SERTECNA SA enpresari, A 31112337 IFK, hamabi mila berrehun eta berrogeita hamar eurotan (12.250,00 €), gehi BEZa.

2. Kontratua sinatzeko ahalmena ematea alkateari.

3. Erabaki hau jakinaraztea esleipendunari eta eskaintzak aurkeztu dituzten enpresei.

4. ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA. 2 POLIGONOKO 85 ETA 86 PARTZELAK (ITUREN).

Espedientean dauden aurrekinak eta aurkeztutako agiri berriak ikusirik, aho batez erabaki da:

1. Bi poligonoko 85 eta 86 partzelei dagokion Planeamendurako Arau Subsidiarioen antolamenduko egiturazko determinazioetako aldaketa (2016ko ekainako bertsioa) onestea. Behin-behineko onespentzat hartzen da erabaki hau.

2. Agiria bidaltzea Landa Garapena, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentura, behin-betiko onespenerako.

3. Erabaki hau jakinaraztea sustatzaileari, B.U.G.

5. ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA. 2 POLIGONOKO 81, 82 ETA BESTE PARTZELA BATZUK (ITUREN).

Espedientean dauden aurrekinak eta aurkeztutako agiri berriak ikusirik, aho batez erabaki da:

1. Bi poligonoko 81, 82 eta beste partzela batzuei dagokion Planeamendurako Arau Subsidiarioen antolamenduko egiturazko determinazioetako aldaketaren Testu Bategina (2016ko ekainaren 16ko bertsioa) onestea. Behin-behineko onespentzat hartzen da erabaki hau.

2. Testu Bategina bidaltzea Landa Garapena, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentura, behin-betiko onespenerako.

3. Erabaki hau jakinaraztea sustatzaileei, J.A.O. eta I.A.E.

Eta bertzerik ezean, 13:50a denean, alkate andreak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.